

IMANOL AGIRRE & FERNANDO HERNÁNDEZ

Kultura bisualaren hezkuntza

Hezkuntza artistikoa biziki aldatzen ari da azkenengo garai hauetan. Orain arte ikuspegi espresionista batean edo Arte Ederretako ikasketetan oinarrituta bazegoen ere, gero eta arreta gehiago jartzen ari zaio kultura bisualaren objektuen aniztasunari, alde kulturalen eta kontestuaren ikasketak barne daudelarik. Kerry Freedmanen (KF) Hezkuntza artistikoaren aldaketa sakon honen bultzatzailea da.

IA FH Zure biografiaz zenbait argibide emango al dizkiguzu?

KF Ez dakit baliagarria izan ote daitekeen esan dezakedana. Eskola publiko batean hasi nintzen lanean, lehen eta bigarren hezkuntzako haurrekin eta 1995ean Minnesotako Unibertsitatera joan nintzen orain egiten ari naizen lana egitera. Unibertsitate honetan curriculumari buruzko egitarauaren barnean arte hezkuntzako heziketaz arduratzen naiz eta hemen ikasi egin dut ez dugula soilik gai edo asignatura bat irakasten, ikuspuntu bat baizik. Horrezaz gain, irakaslegoaren prestakuntzan jarduten dut unibertsitatean ere, bai hasierako formakuntzan bai formakuntza iraunkorrean.

IA FH Batzuen ustez, artelanak mekanikoki errepikatzeke aukerak hiltzorian utzi omen zuen artea. Zure ustez antzeko zerbait gerta al daiteke egile edo artistarekin gaur egungo teknologia berrien eraginarengatik?

KF Zerbait ikasterakoan berria den hori dakigunari egokitu egiten diogu eta horrek bultzatzen gaitu tresnen ezaugarriei horrenbeste garrantzia ematera. Horregatik, sarritan, era honetako fenomeno berri baten aurrean gaudenean uste izaten dugu alde teknikoak direla ikasi beharrekoak eta ez, ordea, aldaketa horiek dakartzaten berkontzeptualizazioa. Adibide batez hobeto uler daiteke hau. Ordenadoreak, esate baterako, txarrak dira eskulturak edo pinturak egiteko, baina oso egokiak dira seriazioetan oinarritutako lanak gauzatzeko; irudi bat erreferentzia gisa hartu eta honen inguruan serie bat egiteko, alegia. Oso tresna egokia suertatzen zaigu ordenadorea ere, irudietatik abiatuz, arte historiaren berrikuspen bat egiteko betebeharraren aurrean jartzen garenean. Era honetako esperientziak ezin dira behar bezala egin beste tresnekin. Estatu Batuetan egin dugun esperientzia honetako bat izan da ikasle bakoitzak ordenadorearen aurrean zer egiten zuen behatzea. Horrela, konturatu ginen batzuk, eseri bezain laister, oso biziki aritzen zirela tekleeekin: saiatu, ukitu, sakatu, jo... Beste batzuek, berriz, asko pentsatu ondoren, ekintza bakar bat egin eta kitto, hortxe uzten zuten egun hartako beren jarduera. Hain zuzen ere ikusi genuen ikaslearen inguru kulturalak izugarritzko eragina zuela ikasleek ordenadorearekin lan egiteko eran. Horrezaz gain, teknologiaren ekarpenik handienetakoa artearen demokratizazioarekin dauka zerikusia. Inoiz baino gehiago irudiak eskuragarri bilakatzen ari dira inoiz ikusteko eta erabiltzeko aukera izan ez dutenentzat. Hauek guztiak aldaketa sakonak dira, egilearen eta publikoaren arteko harremanak aldatuko duen merkatu birtual baten sorrera ekarriko dutelako.

IA FH Eta Hezkuntza Artistikoan zer eragin izango dute aldaketa hauek?

KF Bere erroetan emango da eragin garrantzitsuena. Estatu Batuetan, behintzat, teknologi berriak Hezkuntza Artistikoaren oinarri berrien parte nabarmena dira. Lehenengoz, ikasleek arte bisualekin daukaten estreinako harremanen bitartekariak direlako; eta bigarrenik, gure oinarrizko curriculumak telebista delako. Horregatik, ikasleek arte bisualari buruz ikusi eta ikasten duten gehiena teknologiaren bitartez iristen zaie, gaur egungo ikasleen bizimoduarekin oso lotuta baitago. Badago hirugarren arrazoi bat ere, teknologia berriek erabat aldatzen ari direla arte bisualek gizartean duten eragina. Bereziki artelanean ari direnak gero eta gehiago erabiltzen ari direlako era honetako bitartekariak, eta horrek esan nahi du guk, irakasleok, kontuan izan behar ditugula aldaketa hauek guztiak. Laugarren arrazoi bat aipatzeko, esan beharra dago teknologia berrien erabilpena erabat ezabatzen ari dela eguneroko kultura arruntaren eta goi mailako kultura elitistaren arteko muga.

IA FH Nabari da gai hau oso emankorra izan daitekeela, baina zure beste kezka batez hitz egitea gustatuko litzaiguke. Hezkuntza Artistikoaz aritzen zarenengan, zergatik nahiago izaten duzu kultura bisual kontzeptua arte kontzeptuaren orde?

KF Biak erabiltzen ditut gehiegi bereizi gabe, hezkuntza artistikoaren arloan ulergarriagoak izan daitezkeen gizabanakoentzat. Arte Ederrez aritzen naizenean Arte Ederrak kontzeptua erabiltzen dut, Herri kultura diodanean oso eremu zehatzez aritzen naizen bezala. Baina arte bisualez hitz egiten dudanean askoz ere kontzeptu zabalagoaz aritzen naiz, curriculumean ikusmenerako formak erabat nahasturik agertzen direlako. Arte Bisualak gure imajinarioan eragina ez dutela, inongo mugik gaintzen ez dutela pentsatzea alegiazko irudipen hutsa besterik ez da. Teknologiarengatik, besteak beste, irudi mota ezberdinek badute beste irudietan eragina. Publizitateak badu eragina zinean; zineak, berriz, errepresentazioaren era tradizionaletan, hauek berriro ere publikitatean... guztien arteko mugak, hortaz, erabat lausoak dira eta askoz ere hobea da kultura bisualaz mintzatzea, arte edo arte bisualez aritzea baino.

IA FH Kontzeptuen aldaketa hau dela eta, esan genezake Hezkuntza Artistikoaren alorrean egitea baino garrantzitsuagoa dela kultura bisualaren irudiez hitz egitea edo haien aurrean kritiko agertzea.

KF Ekoizpena oso garrantzitsua da, oraindik, ikasleek edozein prozesu artistikoan ematen diren arazoak ulertu ahal izateko daukaten biderik egokiena delako. Baina erantzuna, hausnarketa kritikoaren ondorio bezala, oso garrantzizkoa da ere. Ezin dugu ekoizpena ahaztu, ikasleek horrela ikasten dutelako irudiak helburu ezberdinekin erabiltzen direla. Horregatik, publikitatearekin lanean hasten garenean ez dugu erantzunekin soilik jarduten, haiek irudiei buruz dituzten iritziekin, alegia; nola egiten diren irudi horiek eta egiteko erak gizabanakoarengan zer nolako eragin duen agerian uzten saiatzen gara. Honen ondorioz ikasleek gaitasun gehiago izango dute kultura bisualaren alor honetan bere aukerak egiteko orduan.

IA FH Era honetako irudi hauekiko, kultura bisualaren objektu hauekiko, zer nolako balioa dute edertasuna eta egiarekin loturiko kategoria estetikoek?

KF Edertasunak kultura artistikoaren oinarri sendo bat izaten darrai. Modernitateak zioen edertasunerantz egindako hurbilketa interesaren ezaz gidaturik izan beharko lukeela. Nozio hau oso garrantzitsua da, artelan baten edertasunaz jabetzean beharrezkoa den urruntasunez hitz egiten digulako. Aitzitik, postmodernitatean egin

dezakegun galdera zera da: zergatik artelanetik aldenduta egon behar? Zergatik egon behar du gure hurbilketa interes ezak markatuta? Hau dela eta, berreskuratu beharko genuke edertasunaren nozioa berak irudikatzen duen hori abiapuntutzat hartuz: edertasunaren beraren bitartekotasuna.

Egiaren kontzeptuari buruz postmodernitatea eszeptiko samar agertzen zaigu. Ez horrenbeste nozioa berarengatik, baizik eta haren berkontzeptualizazioaren beharrarengatik. Honek eskatzen du arreta Egiaren eta Errealitatearen arteko harremanean jartzea, eta ez horrenbeste egiak bere adiera filosofikoarekin duen harremanean.

Ez gara hurbiltzen orain Edertasunaren eta Egiaren kontzeptuen gakoetara filosofiaren edo psikologiaren eskutik, modernitatean bezala, baizik eta gizabanakook gure bizitza arruntean kontzeptu hauetaz egiten ditugun erabilpenetik. Edertasuna eta Egia ez dira objektuen mamiei dagozkien balioak, XVIII. mendeko arrazionalistek zioten bezala. Gizabanakook nozio hauetaz ditugun pertzepzioen ondorioak dira, eta horregatik bi hauek sozialki kontestualizatutako nozioak dira.

IA FH Berkontzeptualizazio honetan, zein izango litzateke artelanak eredu gisa gordetzen dituzten museoen edo era honetako instituzioen papera?

KF Leku hauek, artelan hauek oso garrantzitsuak izaten darraite, bizitza sozialean eta hezkuntza artistikoan hala direlako. Kontuan hartzen badugu identitatearen nozioak azken denboraldian egin duen gorakada, ezin izango dugu sahiestu artelan hauek jendearen identitate historikoarekin duten lotura. Baina badaude instituzio hauen eta gordetzen dituzten lanen iraupenaren aldeko beste arrazoi batzuk. Hauetako bat da arte ederrek badutela eragina beste arte eratan. Kultura bisuala ulertu nahi bada, derrigorrezkoa da arte ederrak ulertzea. Bestalde, oso emankorrak dira ikasleen begietara ulergarriagoak egiteko historian balio artistiko handia izan duten objektu horien balore sortzaileak; ikasleek jakin dezaten zergatik lortu duten miresgarritasun hori. Horrek esan nahi du ez dela soilik objektua ezagutu behar (nork egin zuen, noiz) baizik eta zer nolako baldintzak eman diren horiek gauzatu ahal izateko, erabilitako baliabideen zergatiak...

IA FH Bukatzeko, gustatuko litzaiguke jakitea nola planteatzen duzun curriculumaren eta ezagutzaren ikuspegi diziplinarteko baten arteko harremana.

KF Esan beharko nuke hasteko ez dagoela curriculuma antolatzeko modu bakar bat, diziplinez edo gaiez; aitzitik, era askotan hurbil gaitzezke harreman honetara: gaiaz, arazoaz, sistema sinbolikoaz edo ikasteko eraz (Gardner-ek adimen anitzak izendatutako horiek). Une honetan, nire ustez, ez dago curriculum diziplinarteko bat aurrera eramateko modu bakar bat. Gehienbat oraingoz zein bide den egokiena erakutsiko digun ikerketa nahikoa egin ez delako. Nire ustez curriculum diziplinartekoaren kontua ez da behar adina teorizatu. Antolaketaren erarik hoberena zein den jakiteko, esperientziak dauzkagu ikerketak baino gehiago.

Nire ustez, hala ere, hurbilketa diziplinarteko bat beharrezkoa zaigu, ikasleak ikasketaren eta ezagutzaren konplexutasunaz behar bezala jabetu ahal daitezen. Baina kontuan edukita benetan ez dakigula zein den abiapunturik egokiena. Ikasketa diziplinartekoen eta gai ezberdinen arteko loturak oso baikorrak direla nabarmenki frogatu izan duten ikerketa ugari dauzkagu, baina oraindik ez daukagu informazio zehatza jakiteko zein diren era diziplinarteko batean aurkeztu beharko lirakeen edukiak eta zein den hau egiteko erarik egokiena.

Kontua ez da soilik ikustea zer ikasten den, baizik eta ikustea ea era honetako ikasketen bidez zerbait hobetzen den. Une honetan adostasun orokorra dago onartzerakoan bai ezagupen diziplinarioaren garrantzia, horrela aurkeztu ohi baita ezagutza, baita ezagupen diziplinartekoak ahalbidetzen duen beste ikasteko erak eta hurbilketak ere. Kontua da zehaztea zer parte dagokion kontzepzio bakoitzari -diziplinarioa eta diziplinartekoa- curriculumean eta bi horien arteko oreka lortzea.

Nire ustez kasuen, arazoen edo ikasteko eren arabera antolatutako curriculum batean hobeto ikasten baldin bada ere, derrigorrezkoa zaigu ikertzea jakiteko zergatik eta nola hobetzen duten ikasbidea era honetako antolaketek.

.....

KERRY FREEDMAN Minnesotako (Estatu Batuak) Unibertsitateko Curriculum eta Hezkuntza Artistiko Departamentuko katedraduna da.

IMANOL AGIRRE Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea da. Osakainen (Nafarroa) bizi da.

FERNANDO HERNÁNDEZ Bartzelonako Arte Ederretako fakultateko irakaslea da, eta “Educación de las Artes Visuales” buletineko koordinatzailea.

>>> www.arteleku.net